

IRAKURKETA MINTEGIA

2025-2026. ikasturteko programaren ildo nagusiak

- 0-12 urte bitarteko haurrentzako liburuak erabiliko dira.
- 2025ean kaleratu diren liburuak irakurri eta aztertuko dira.

HELBURUAK

- Formazioa eskaini haur literaturan eta irakurketarako dinamizazioan.
- Liburuen balorazio irizpideak eta aurkezpen fitxak landu.
- 2025ean 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzat euskaraz kaleratu diren literatura obra guztiak irakurri eta bakoitzaren aurkezpen bat idaztea Galtzagorriren webgunean zintzilikatzeko.
- *Liburuen Altxorra / Liburu ibiltariak* eta beste zenbait proiektutarako liburu zerrendak osatzea.
- Urtero euskaraz haurrentzat argitaratutakoaren *kalitatea neurtzea*, estatistikak osatuz.

GIDARIAK

- Imanol Mercero, literatura kritikaria.
- Larraitx Idarreta, bibliotekaria.

DATAK, ORDUAK, LEKUA

- Donostiako Haur Liburutegi Nagusian egingo dira saioak: Fermin Calbeton, 25 (Alde zaharra).
- Saioak hilean larunbat batez: 10:00etatik 13:00etara izango dira. Egutegi zehatza:

2025	2026	
Irailaren 20a	Urtarrilaren 17a	Apirilaren 18a
Urriaren 18a	Otsailaren 21a	Maiatzaren 16a
Azaroaren 15a	Martxoaren 21a	Ekainaren 6a
Abenduaren 13a		

PROGRAMA- FORMAZIOA

Irakurketa mintegiaren ohiko saioez gain, aurten formazio saio berri bat antolatu dugu.

Alde batetik, Miren Billelabeitia gazte literaturako bitartekaria gonbidatu dugu “Literatura esperientziak gazteekin: sormena, heziketa literarioa, gustu estetiko eta pentsamendu kritikoa” saioa eskaintzeko. Ikastaroaren muina honakoa izango da:

Sarrera gisa, oinarri orokor batzuk azalduko dizkigu Billelabeitiak, besteak beste:

- Eskolan mitoak iraultzen: gazteek ez dutela irakurtzen ez da egia.
- Esperimentazioa abiapuntu: literatura landu irakurketaren bidez.
- Tertulia literario baten antolaketa: aholkuak, pistak, etab. tertulia arrakastatsu bat egiteko.

Ondoren, bere esperientziatik abiatuta adibide zehatzak eskainiko dizkigu eta bakoitzarekin zer-nola landu duen eta zer lortu duen.

Ikastaroaren bigarren zatian, Gipuzkoako gazte irakurle talde desberdinetako gidariek euren esperientziak eta bizipenak azalduko dizkigute mahai-inguru batean: Peru Magdalena, Nerea Loiola eta Eider Perez gonbidatu ditugu. Olatz Mitxelena izango da moderatzailea.

Saio monografikoa **2025eko azaroaren 8an izango da, 10:00etatik 14:00etara, San Telmo museoko ekitaldi aretoan.**

Formazio saio hau mintegikideei bereziki eskainia egongo den arren, publiko orori irekia izango da. Mintegiko kideentzat doan izango da. Bazkideek prezio berezia izango dute. Aurrerago zehaztuko zaizkizue formazio saio honen nondik norakoak eta izena emateko eman beharreko urratsak.



Galtzagorri elkartea. Zemoria kalea 25, behea. 20013 DONOSTIA.
Telef.: 943 471 487 E-maila: administrazioa@ibbygaltzagorri.eus